Hernaniko Udala

HERNANIKO UDALAREN ETA CLUB DEPORTIVO HERNANI ELKARTEAREN ARTEKO DIRULAGUNTZA HITZARMENA, ZUBIPEKO KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEKO

Hernani, 2025eko martxoaren 18a

ELKARTU DIRA

Alde batetik, **Xabier Lertxundi Asteasuinzarra,** Hernaniko Udalaren izenean eta haren ordezkari gisa, 2023ko ekainaren 17ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren indarrez eta Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.b) eta f) artikuluetan emandako eskuduntzen egikaritzan.

Bestetik, **Martxelo Ezponda Irizar**, Club Deportivo Hernani elkartearen izenean eta haren ordezkari gisa, elkarteko lehendakari den aldetik eta Zuzendaritza Batzordeak 2021eko otsailaren 2an hartutako erabakiaren indarrez. Horren lekuko, hitzarmen honekin batera doan ziurtagiria, 2021eko otsailaren 23an igorrita

Biek ere dokumentu hau egiteko nahikoa gaitasun aitortzen diote elkarri eta hau

ADIERAZTEN DUTE

2021eko martxoaren 17ko 2021/360 zenbakidun Alkate dekretu bidez Zubipe kirol instalazioak erabiltzeko baimena eman zitzaion Club Deportivo Hernaniri, bertan zehaztutako baldintzak mantendu bitartean eta gehienez ere lau urtez (zehaztapenak 1.eranskina).

Erabilera baimena indarrean dago 2025eko martxoaren 17 arte eta hura berritzeko espedientea, araudian zehaztutakoari jarraikiz, dagokion unean izapidetuko da, beti ere, baimenaren gehieneko iraupena amaitu aurretik.

Horiek horrela, parte hartzen duten alde bien interesekoa delako, Hitzarmen hau sinatzea erabaki dute ondoko baldintzak kontuan hartuta:

ESTIPULAZIOAK

LEHENA.- DIRULAGUNTZA

1- Hernaniko Udalak klubari 2025, 2026, 2027 eta 2028 urteetan 40.800 euro urtero ordainduko dizkio hitzarmena indarrean dagoen bitartean, aipatutako hitzarmen honen gai diren instalazioen mantentze-lan prebentiboek, garbiketak eta zainketak eragiten dituen gastuetarako. (Instalazioen mantentze eta zainketa lanak 2. eranskina).

2.- Kirol instalazioetan dauden lorategi eta belar-guneak aldatzeko ahalegina egingo dutela, mantentze lanen gastuak txikiagoak izan daitezen.

3.- Diru-laguntzaren zenbatekoa horrela ordainduko da urte bakoitzean:

Hernaniko Udala

- Instalazioen mantentze eta zainketa lanen gastuetarako %60 (24.480€) hitzarmena onartu eta sinatzean
- Instalazioen mantentze eta zainketa lanen gastuetarako %40 (16.320€) hitzarmen honen 1.4 atalean jasotako justifikazio memoria aurkeztean.

4.- Dirulaguntzaren justifikazioa. Emandako diru-laguntza hitzarmen honetan jasotako helbururako erabili dela egiaztatzeko, onuradunak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du hurrengo ekitaldiaren urtarrilaren 31 baino lehen:

- Jarduerari buruzko txostena
- Erakundearen balantze ekonomikoa eta kontuak
- Kontabilitatean jasotako gastuen zerrenda
- Gainera, gastu partida bakoitzaren jatorrizko fakturak edo baliokideak, bai paperean bai euskarri informatikoan (kalkulu orria), honako datu hauek jasotzen dituztela: dokumentu mota, faktura zenbakia edo gastuaren erreferentzia, data, kontzeptua, hornitzailea, zenbatekoa (BEZ kanpo).
- Zergak ordainduta eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak beteta daudela adierazten duen ziurtagiria (Ogasuna eta Gizarte Segurantza)

Aurkeztu beharreko agiri horiek guztiak aurreko ekitaldikoak izango dira
Dirulaguntza arloan indarrean dagoen legeria bete beharko da.
Egiaztatu ondoren, Club Deportivo Hernanik dirulaguntzaren 2. zatia jasoko du.

Eta horrekin ados daudela adierazteko izenpetu dute dokumentu hau goian adierazitako egunean eta lekuan.

Hernaniko Hernaniko Alkatea
Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

Club Deportivo Hernani elkartea
Martxelo Ezponda Irizar

Hernaniko Udala

1. ERANSKINA: Zubipeko instalazioen baimen erabileraren zehaztapenak

"Zubipe" Kirol instalazioen udal titularitatea zati batean salerosketa bidezko jabetzatik dator eta beste batean Gipuzkoako Foru Aldundiaren erakunde instrumentala zenak ITTEN HERRIEKIN LAN EGITEN SAk (gaur egun ETORLUR) Hernaniko Udalaren alde eratutako usufrukturako eskubide errealetik dator, azken hau 2015eko uztailaren 7an Donostiako 5.zenbakidun Jabetza Erregistroan inskribatua.

Udal Inbentarioan Jabari publikoko ondasun modura jasota dago, zehazki erabilera eta zerbitzu publikoari atxikitako ondasun gisa, Kirol erabilerari eragiten dio.

Zubipeko kirol instalazioak ondoko elementu hauek osatzen dituzte:

a) *Belar sintetikozko 100X60 metro dituen futbol zelaia (11ko taldeentzat)*
b) *Belar sintetikozko 60x40 metro dituen futbol zelaia (7ko taldeentzat)*
c) *Eraikin bat zeinaren goialdean 900 harmaila dituen tribuna baitago eta, azpialdean erabilera anitzeko hainbat lokal baitaude; hala nola, gizarte lokalak, aldagelak, bulegoak, galdera-gelak eta mantentze-lanetarako tailerra.*
d) *Hainbat kirol ekipamendu, argiztatze sistema eta ihinztadura bidezko ureztatzeko sistema*

Aurreikusita dago, epe ertainean, belar sintetikozko 60x40 metro dituen futbol zelaiari erabilera irekia ematea eta Zubipe kirol instalazio eremutik kanpo egotea.

Jarduera Fisikoa eta Kirola sailetik kirol instalazio hauen erabilera Club Deportivo Hernani elkarteari uzteko proposamena egin da eta honen baldintzak zehaztu dira.

Kontuan harturik espedientean dauden honako txosten hauek:

- *Jarduera Fisikoa eta Kirola Saileko Zuzendariaren 2021eko martxoaren 15eko txostena.*
- *Kontratazio eta Ondareko zerbitzu juridikoen 2021eko martxoaren 15eko txostena*

Kontuan harturik honako araudi hau:

- *Toki Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 233. artikulua.*

- *Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92 artikulua eta Toki Entitateen ondasunei buruzko Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 77. artikulua.*

Toki Araubideari buruzko Oinarriak ezartzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 q) artikuluan emandako eskumenen egikaritzan, honako hau

ERABAKI DUT

LEHENA. *- Club Deportivo Hernani Elkarteari "Zubipe" kirol instalazioak erabiltzeko baimena ematea jarraian zehazten diren baldintzak betetzekotan:*

Hernaniko Udala

1.- Iraupena:

1.1.-Autorizazioak indarrean jarraituko du egungo inguruabar, egoera eta baldintzak mantentzen diren bitartean eta gehienez ere lau urtez.

1.2.Klubak autorizazioari uko egin ahal izango dio edozein unetan, inolako arrazoirik justifikatu gabe. Aipatutako uko egiteak ez du penalizaziorik edota kalteordainik eragingo, baldin eta instalazioak kontserbazio egoera perfektuan geratzen badira.

2.- Instalazioen ustiaketa ekonomikoa:

2.1 Klubak kirol aurrekonturako funtsak lortzeko beharrezkoak iruditzen zaizkion formulak bideratzeko eskubidea dauka; hala nola, txapelketa partiduetarako sarrerak, abonuak, taberna, iragarkiak, naming rights eta abar.

2.2. Gainera, Hernaniko Udalak futbol zelaiak eta aldagelak une puntualetan beste pertsona edota entitate batzuei lagatzeko eskubidea dauka, dela kirol jardueretarako dela kirolarekin zerikusirik ez duten jardueretarako, haiek klubeko jardueren garapenean eragiten ez badute. Erabilera horiek direla eta ez da inolako irabazirik egongo, ez Hernaniko Udalarentzat ez eta hirugarrenentzat ere. Club Deportivo Hernani elkarteak prezio orokor bat zehaztuko du hirugarren erabiltzaileek sortzen dituzten gastuak ordaintzeko (erregaia, langileak, etab.)

2.3.- Aurretik esandakoa kontuan izanda, Hernaniko Udalak antolatu edota baimendutako jardueretan Club Deportivo Hernanik kontratatutako publizitatea kendu edota estali ahal izango da.

3.- Erabiltzeko baldintzak:

3.1- Klubak kirol jarduerak egiteko lehentasuna izango du beste edozein entitate edota pertsona publiko zein pribaturekiko.

3.2- Erabileraren inguruko Hitzarmen hau dela eta, Club Deportivo Hernani elkartea behartuta dago instalazioetan futbola sustatzen, bereziki honela:

a) Hernaniko Udalari eskola kirolaren eta jolas-kirolaren inguruko gauza guztietan lagunduz.
b) Hastapeneko eta lehiaketazko kirola bultzatuz.
d) Herriko elkarte desberdinen ekintzak aurrera eramaten lagunduz
e) Hernaniko Udalak antolatzen dituen sustapen eta orientazio programetan elkarlanean arituz.

Beti ere eskumena duten erakundeek ematen dituzten arauak betez.

3.3.- Klubak Hernaniko Udalarekin kontratatu duten pertsonen edota erakundeen eskura jarriko du kirol instalazioen erabilera. Bi erakundeen arteko koordinazioaren xehetasunak baimenaren kontrola eging duen Jarraipen Batzordeak zehaztuko ditu.

3.4.- Klubak honako hauek entregatuko dizkio Hernaniko Udalari: urtean egindako jardueren memoria, diru-sarreren eta gastuen aurrekontua eta aurreko urteko gastu eta sarrera guztien aurrekontuaren likidazioa.

Hernaniko Udala

4.- Arriskuak aseguratzea:

4.1.- Klubak kirol instalazioetan antolatzen dituen jardueren funtzionamendu ez normalaren ondorioz Hernaniko Udalari edota hirugarrenei kalte-galerak eragiten badie, haiek ordaindu beharko ditu. Ardura hori bermatzeko helburuarekin, Klubak aseguru kontratu bat sinatu beharko du Ikuskizun publikoen eta aisialdiko jardueren azaroaren 10eko 4/1995 Legeak zehaztutako gutxieneko kopuruarekin.

4.2.- Zenbateko hori urtero berrikusiko dute Hernaniko Udaleko Jarduera Fisikoa eta Kirol Saileko teknikariekin.

4.3.- Hernaniko Udalak edukitzailea aseguratzeko betebeharra du eta, Klubak, berriz, edukia aseguratzekoa. Biek izango dute besteak kontratatutako polizaren kopia.

5.- Langileak:

5.1.- Club Deportivo Hernani elkarteak kontratatuko ditu Zubipeko instalazio guztien (joko zelaiak barne) mantentze-lan prebentiboez, garbiketaz eta kontserbazioaz arduratuko den/diren langilea/k.

5.2.- Era berean, Klubak nahi dituen pertsona guztiak kontratatu ahal izango ditu Zubipeko kirol instalazioetako zerbitzuak emateko. Edonola ere, Hernaniko Udalak ez du aipatutako zerbitzuen ondoriozko lan arloko erantzukizunik izango.

5.3.- "Autobabes plana" prestatzeko, ezartzeko, mantentzeko eta berrikusteko ardura Club Deportivo Hernani elkartearena da.
Udalak desfibriladore bat jarri beharko du, baina haren mantentzeaz kluba arduratuko da. Nahitaez, klubeko pertsonen batek desfibriladorearen ikastaroa eginda izan beharko du.

5.4.- Jarraipen batzordeak urtean behin instalazioen egoeraren azterketa egingo du, instalazioen mantentze-lan prebentibo desegokien ondoriozko narriadura saihesteko helburuz.

5.5.- Klubak Zubipeko kirol instalazioetan beren zerbitzuak eskaintzen dizkion langileei dagokienez lan eta Gizarte Segurantza arloetan indarrean dauden xedapen guztiak bete behar ditu. Hori dela eta, Hernaniko Udalak hala eskatzen badu, Klubak dokumentuen bidez frogatu beharko dio xedapen horiek betetzen dituela.

6.- Ikuskapena:

Klubaren betebeharra da udal teknikariei eta Hernaniko Udalak izendatutako beste edonori instalazioetara sartzen uztea, instalazioak ikuska ditzaten.

7.- Irekitze orduak:

7.1.- Klubak hala erabakiz gero instalazioak itxita egongo dira, aldez aurretik Hernaniko Udalarekin edota Hernaniko Udalak beste erakunde batzuekin hartutako konpromisoak errespetatuz. Nahasteak saihesteko, instalazioak itxita eta irekita egongo diren egunak eta ordutegiak jasotzen

dituen urteko egutegi bat prestatuko du klubak, eta Hernaniko Jarduera Fisikoa eta Kirola saileko Teknikariei banatuko die.

7.2.-Instalazioak zaharberritze-lanen, matxuren edota antzeko arrazoien ondorioz ere itxi ahal izango dira.

7.3.- Klubak ordutegiak nahi bezala zabal ditzake aldez aurreko baimenik gabe, baina Hernaniko Udalari jakinarazi beharko dio, aldaketak egutegian sar ditzan.

8.- Zaharberritzeak:

8.1.- Hernaniko Udalak ordainduko ditu Zubipeko instalazioak federazioak emandako xedapenetara edo federazioak hartutako erabakietara egokitzeko egin beharreko zaharberritze gastu guztiak, baldin eta aldaketa horiek ez badituzte egiturazko elementu finkoak ukitzen.

8.2.- Hernaniko Udalak ordainduko ditu instalazioak segurtasun, ikuskizun, jarduera gogaikarri eta abarretan eskumena duten erakunde administratiboen xedapenetara egokitzeko lanak.

8.3.- Mantentze-lanen kostuak gutxitze aldera, sarbideak hobetze aldera, etab. beharrezko jotzen den edozein era-berrikuntza, guztion intereserakoa, Hernaniko Udalak ordainduko du.

8.4.- Hernaniko Udalak ordainduko ditu egitura akatsen, ezkutuko akatsen eta eragile atmosferiko, zein bestelako halabeharrezko edota ezinbesteko inguruabarren ondorioz eragindako zaharberritze-lanak eta konponketak. Bai eta beren bizitza zikloa amaitua daukatenak ere, udaleko teknikariek hala ziurtatzen badute. Era berean, Hernaniko Udalak ordainduko ditu bi erakundeek elkar hartuz egiten dituzten egitura eta instalazioen zaharberritzeak, eta Hernaniko Udalaren ustean interes berezikoak direnak.

8.5.- Club Deportivo Hernani elkarteak ez du zaharberritze-lanak egiteko ahalmenik. Berehalako kaltea gertatzeko arriskua dagoen kasuetan, Hernaniko Udalari jakinaraziko zaio, eta udalak egin beharreko lanak egingo ditu, zentzuzko epe batean, Hernaniko Kirol Elkartearekin koordinaturik. Beharrezkoa izanez gero, instalazioa erabiltzaileentzat eta herritarrentzat itxi egingo litzateke, harik eta matxura edota kaltea konpondu arte.

8.6.- Lapurretek edota bestelako ekintza bandalikoek kalteak eragiten badituzte, dagokion aseguruari haien berri emango zaio, eta aseguru etxeak zehaztuko ditu zein izango diren egin beharreko konponketak eta haien zenbatekoa.

8.7. Hernaniko Udalak ahaleginak egingo ditu eragile atmosferikoen, lapurreten eta bestelako ekintza bandalikoen ondorioz Zubipeko instalazioak normal erabili ezinda egon beharreko denbora ahalik eta laburrena izan dadin.

8.8. Ahal den neurrian, Club Deportivo Hernani elkarteak sustatuko du auzolan bidez hainbat lan egitea.

9. Mantentzea eta kontsumoak:

9.1.- Club Deportivo Hernani elkarteak instalazioen mantentze-lan prebentiboak eta kontserbazio-lanak egiteko konpromisoa hartzen du, eta lan horien ondorioz sortzen diren gastuak ordaintzekoa ere bai. Lan horiek Club Deportivo Hernani elkarteak egindako mantentze

prebentiborako planaren arabera egingo ditu. Horrez gain, instalazioen mugen barruko gune guztien garbiketa-lan guztiak egiteko konpromisoa ere hartzen du, sarbideena, lorategiena, korridoreena barne. Hernaniko Udalak egingo ditu instalazioaren egituraren mantentze-lan prebentiboak.

9.2.- Hernaniko udalak bere gain hartuko ditu instalazioaren kirol erabilerak sorturiko kontsumoak, hala nola argindarra, ura eta gasa, horiek denak kontagailu bidez kontrolatuak. Hernaniko Udalak bere gain hartzen dituen kontsumoak, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerakoak izango dira. Kanpo geratuko dira bestelako erabilerek sortutako kontsumoak; instalazioan dagoen tabernaren kontsumoa zehazki.

9.3.- Udalak ordainduko ditu, belar artifizialaren aldaketatik eratorritako kostuak eta enpresa espezializatuek aldian-aldian belarra nola dagoen aztertzeko egiten dituzten ikuskapenak ere. Horrez gain, udalak ordainduko ditu behar den hondarra eta kautxua aldian-aldian hornitzeko gastuak, baldin eta dagokion teknikariak txosten bidez material horiek hornitzea beharrezkoa dela adierazi badu, eta, behar izanez gero, lan horiek egiteko beharko liratekeen baliabide materialak eta formatiboak ere bai. Hondarra eta kautxua zabaltzea Club Deportivo Hernani elkartearen kontura izango da.

9.4.- Club Deportivo Hernani elkarteak konpromisoa hartzen du era jasangarri batean aritzeko eta energia eta ur kontsumoa era eraginkor eta arduratsu batean kudeatzeko.

9.5.- Instalazioak behar bezala zaintzen ez badira Hernaniko Udalak beharrezko obrak egiteko eskumena izango du. Kasu horretan, lan horien kostua Club Deportivo Hernani elkarteari ordainarazi ahal izango zaio. Club Deportivo Hernani elkartea arduratuko da instalazioak egoera onean edukitzeaz. Horretarako, bertako langileez baliatu ahal izango da, edo hirugarrenak kontratatu ahal izango ditu. (2. eranskinean agertzen dira kirol elkarteak egin beharreko mantentze-lanen zerrenda.)

10- Baimena ezin da transmititu:

10.1.- Elkarteari instalazioak erabiltzeko emandako baimena ezingo zaio beste inori transmititu.

10.2.-Klubak baimena dauka eraikin sozialeko instalazioen ostalaritza-ustiaketa hirugarrenei uzteko.

11.- Hernanin beste futbol elkarte bat sortzea

Club Deportivo Hernani elkartearen izaera historikoa aintzat hartuta, Hernanin beste futbol elkarte bat sortzeak ez dio baimen honen indarraldiari eragingo. Hala ere, Hernaniko Udalak, bere instalazioak beste klubei zein federazioei utzi ahal izango dizkie.

12.-Baimenaren baldintzak ez betetzea:

12.1.- Klubak autorizazio honen bidez bere gain hartutako betebeharrak larriki edo jarraiki hausten baditu baimena indargabetuko da eta horrez gain administrazio zigorrak eta erantzukizun zibilak ere egon daitezke.

12.2.- Kasu horretan, zintzilik dauzkaten betebeharrak bete ditzatela eta sortutako kalte-ordainak ordain ditzatela exijitu ahal izango zaie ebazpen arrazoitu baten bidez.

12.3 -Nolanahi ere, baimena indargabetzeko espedientea izapidetu beharko da interesatuari dagokion entzunaldi epea eta alegazioetarako epea emanez.

12.4.- Baimena indargabetzeak eta ondorioz etorriko den Klubaren eskubide amaierak utzarazpen administratiboa ekarriko du.

12.5 -Hernaniko Udalak bere gain izango du kirol instalazioak defendatzeko berreskuratzeko eta egitaratzeko egokitzen zaizkion ahalmen eta botere administratibo, zibil zein penalak.

13.-Hobekuntzen itzulketa:

13.1.- Baimenaren epea amaitzen denean, Hernaniko Udalarentzat izango dira Klubak egindako hobekuntza guztiak, eta erakunde horrek instalazio guztiak egoera perfektuan utzi beharko ditu.

13.2.- Ez dira hobekuntzak gisa kontsideratuko erraz garraia daitezkeen higigarriak,eta klubak nahierara erabiltzeko objektutzat hartuko dira, betiere, horiek eramateko garaian, higiezinari eta bertako elementuei inolako kalterik eragiten ez badiete.

14.- Kirol instalazioak erabiltzeko araudia:

14.1.- Club Deportivo Hernani elkarteak Zubipe udal kirol instalazioen erabilera arautu ahal izango du; araudiak futbolaren praktika egokiari eta tratu onen aldeko jarrerari egin behar dio erreferentzia.

14.2.- Club Deportivo Hernani elkarteak Hernaniko Udalari araudiaren proiektua helarazi beharko dio, klubeko Zuzendaritza Batzordeak onartu aurretik.

15.- Jarraipen batzordea.

15.1- Instalazioen funtzionamendu egokia bultzatzeko eta hitzarmen honetan ezarritako betetzen dela bermatzeko, bi alderdiek Jarraipen batzordea eratzea erabaki dute. Honela osatua egongo da:

Hernaniko Udalaren aldetik:

Jarduera Fisikoa eta Kiroletako delegatua
Jarduera Fisikoa eta Kirol batzordeko kide bat
Teknikari bat (ahotsa bai, botori kez)

Club Deportivo Hernaniren aldetik

Zuzendaritza batzordeko bi kide.
Teknikari bat (ahotsa bai, botori kez)

Batzordeburua Hernaniko Udaleko Jarduera Fisikoa eta Kirol delegatua izango da eta hitzarmen hau izenpetzen duten erakundeetatik edozeinek izendatzen dituzten teknikariak edo profesionalak joan ahal izango dira Jarraipen Batzordearen bilkuretara. Bozketetan berdinketa gertatuz gero batzordeburuak kalitatezko botoa izango du.

15.2.- Jarraipen Batzordeak, beste eginkizun batzuen artean, honakoak burutuko ditu:

a) Kirol instalazioen erabilerarekin loturiko hainbat alderdiren inguruko txostenak edo azterketak egitea.
b) Instalazioak konpontzeko, zaintzeko, berritzeko eta abar jarduerak koordinatzea.
c) Kirol jarduerak egiteko orduan elkarren arteko lankidetza sustatzea.
d) Etorkizuneko zerbitzu edo instalazioei buruzko proiektuak aztertzea, baldin badaude.
e) Kirol instalazioak erabiltzean eta aprobetxatzean sortzen diren gorabeherei buruzko argibideak ematea.
f) Antzeko beste edozein gairi buruz ere aipatutako moduan jardutea.
g) Instalazioen ustiapenarekin zuzenean lotutako gastu eta diru sarrerak aldian-aldian aztertzea eta, hala dagokion unean, Hernaniko udalak dirulaguntza gisa eman beharreko diru kopurua aldatu behar ote den jakinaraztea, hitzarmen honen hirugarren estipulazioan jasotakoaren arabera.

15.3.- Jarraipen batzordea Club Deportivo Hernani elkarteak edo Udalak hala eskatzen duen aldiro elkartuko da, batzordeburuari jakinarazita. Nolanahi ere, urtean behin elkartuko da.

15.4.- Batzordearen bileretarako deialdi arrunta batzordeburuak egingo du. Idazkari lanetan udaleko teknikaria arituko da.

15.5.- Jarraipen Batzordearen bileren nondik norakoak jasotzen dituen aktak egingo dira, bi ale.

15.6. - Bertaratuen gehiengoak hartuko ditu erabakiak, eta batzordeburuak kalitatezko botoa izango du berdinketa gertatzen den kasuetan.

16.- Informatzeko betebeharra

16.1.- Kluba derrigortuta dago Hernaniko Udalari udalak jakin beharreko edozein gertakizun garrantzitsuren berri ematera. Hala nola, instalazioetako matxuren, ezbeharren, istripuen eta abarren berri. Halaber, instalazioetan burututako kirol jarduerei eta gizarte-jarduerei buruzko gauza guztien berri eman beharko dio aipatutako erakundeari. Horretarako, urtean behin memoria bat aurkeztu beharko du. Memoria horretan erabiltzaile kopurua eta tipologia adierazi beharko dira, bai eta Hernaniko Udalak eskatzen dituen bestelako datu estatistikoak ere.

16.2.- Modu frogagarrian kontrakorik jakinarazten ez den bitartean, baimenari dagozkion jakinarazpenak Hernaniko Udalari bidaliko zaizkio.

17.- Kirol instalazioen zuzeneko edota zeharkako kudeaketa

Baimen honetan honetan jasota dauden Hernaniko Udalaren eskubide eta betebehar guztiak instalazioak, zuzenean zein zeharka, kudeatzen dituzten organoenak eta erakundeenak izango dira, hala badagokio.

18.- Hizkuntza irizpideak.

1.- Adingabeei edo gazteei zuzendutako jarduera (entrenamenduak, aldageletako tertuliak,aholkuak, material idatzia, oharrak...) euskaraz izango da, ahoz eta idatziz. Beraz,entrenatzaileek elebidunak izan beharko dute.

*2.- Herritar orori zuzendutako idatzizko komunikazioa (egitarauak; kartelak publizitatea; jarduera egiteko espazio publikoa erabili behar izanez gero, bertan jarritako idatziak barne; eta Errugbi elkartearen barruko nahiz kanpoko errotulazioa) euskaraz izango da. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez.**

3.- Herritar orori zuzendutako ahozko komunikazioa (jardueraren aurkezpena, megafonia..) euskaraz izango da. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez.

4.- Administrazioekiko harremanetan (Udalarekin –jarraipen batzordea barne–, Foru Aldundiarekin) euskara erabiliko da lehentasunez, ahoz eta idatziz.

** Idatzizko testuan honela emango zaio lehentasuna euskarazko mezuari:*
- Euskarazkoa nabarmendu, letra handiagoa edo lodia erabiliz.
- Euskarazkoa beltzez eta gaztelaniazkoa grisez idatziz.
- Euskarazko testua goiko aldean edo ezkerraldean idatziz.
- Beste modu batzuk:
-Osagai batzuk euskara hutsean emanez: kopuruak, toki-izenak, datak..
-Testua osorik euskaraz eta laburpena gaztelaniaz emanez Udaleko Euskara Zerbitzuak beharrezko laguntza emango du, euskarazko testua zuzen eta egokia dela bermatzeko.

19.-<u>Berdintasun irizpideak.</u>

- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortze aldera, eta alderdi ekonomikoari dagokionez, helburua da, baliabide ekonomikoen banaketan sexuen arteko oreka bat ezartzea; beraz, helburu hau lortzeko ekintzak abian jarriko dira. Ekintza hauei jarraipena egingo zaie urtez urte, eremu honetan ematen diren pausoak ebaluatuz eta kasuan-kasuan beharrezko neurriak hartuz.

- Berdintasunezko komunikazioa. Kirol jarduerak promozionatzeko erabiltzen diren kartel,testu eta dokumentuetan, hizkuntza eta irudi ez sexistak erabiliko dira; bai barne mailako dokumentuetan, baita kanpora begira ateratzen diren publizitate edo bestelako argitalpenetan.

- Gobernu-organoen egitura. Kirol taldeko erabaki-hartze organoetan parekidetasuna sustatzeko neurriak ezarriko dira, edota erabakiak hartzeko bi sexuen partaidetza ahalbidetzeko mekanismoak ezartzeko ahalegina egingo da.

- Giza baliabideen banaketa. Entrenatzaileen artean parekidetasuna sustatzeko neurriak ezartzen saiatuko dira, baita hauei prestakuntza bermatzeko ere. Halaber, ez da emakumeenganako diskriminaziorik onartuko, esaterako ordainsariei dagokienez.

- Emakumeen partaidetza. Emakume kirolarien partaidetza balioetsi eta ezagutzera emateko helburuz, Kirol Sailak eta Berdintasun Sailak elkarlanean bultzatutako ekimenak antolatzeko garaian, kirol taldeetako kideek, ekimenak antolatzeko bileretan eta ekimenaren antolakuntzan parte hartuko dute.

- Baliabide materialen banaketa. Emakume eta gizon taldeen arteko oreka ezarriko da; zerbitzuen, ordutegien, espazioen eta arropen banaketari dagokionez. Baita zerbitzu mediko eta fisioterapiako zerbitzuei dagokionez.

- Formakuntza. Kirol taldeko kideek (entrenatzaileek, zuzendaritza kideek,..) hezkidetzari buruzko formazio saio bate gin beharko dute, urtero Hernaniko Udaleko Berdintasun Sailaren gidaritzapean.

- Tratu onak. Kirol klubak beraien egunerokotasunean edota lehiaketa egunetan, jarrera sexistei, homofobei eta arrazistei aurre egiteko protokolo bat landu, martxan jarri eta jarraipena egin beharko da.

20.- Jasangarritasuna:

Jarduera fisiko eta kirol arloa era jasangarri batean jarduteko helburuarekin, Hernaniko Udala eta Kluba elkarlanean arituko dira, hondakinak , energi eta ur kontsumoa era eraginkor eta arduratsu batean kudeatzeko.

21.- Hondakinen kudeaketa:

21.1.- Hondakin kudeaketaren arduradun bat izendatuko da eta hura izango da ondakinen bulegoarekin harremanetan egongo dena.

21.2.- Arduradun horrek, ekitaldi edo zerbait berezia antolatzen denerako aurreikusi beharko ditu hondakinen gaiarekin lotuta izan dezaketen behar bereziak, eta hala dagokion kasuetan, hondakinen bulegoarekin adostu, beharko diren edukiontzi kopurua. Hori guztia, gutxienez 15 eguneko aurrerapenarekin.

21.3.- Tabernan sortzen diren hondakinak ere modu sailkatuan bilduko dira eta sukaldean sortzen den olio erabilgarria ere horretarako eskumena duen enpresarekin kudeatuko da.

21.4 .- Eltxo eta eulien zabaltzea ekiditeko, eraikinaren kanpoaldean dauden koloretako ontziak beti garbi eta txukun mantenduko dira. Horretarako egunero hustu eta garbituko dira.

21.5 .- Hondakinak frakzio bakoitza modu honetara atera beharko dira:

- *Frakzio organikoa: poltsa konpostagarrietan edukiontziaren barruan.*
- *Ontzi arinak: granelean edo poltsa gardenetan edukiontziaren barruan. Ez dira poltsa beltzak onartuko.*
- *Paper-kartoia: edukiontzi urdinen barruan ondo tolestaturik.*
- *Errefusa: poltsa gardenetan edukiontzi barruan. Ez dira poltsa beltzak onartuko.*

21.6.- Udalak hondakinak kudeatzeko utzitako edukiontziak garbi eta txukun mantenduko dira.

2. ERANSKINA: Zubipeko instalazioen mantentze-lanak

Aldagelak:
- Ateak eta osagarriak (sarrailak, eskulekuak, krisketak, giltzak, etab.)
- Eserlekuak eta osagarriak
- Argiak eta osagarriak (piztarazgailuak, euskarriak, etab.)
- Entxufeak
- Etengailuak
- Esekitokiak

Hernaniko Udala

Dutxak
Iturriak
Azulejoak
Ispiluak

Komunak:
Konketak
Iturriak
Ispiluak
Komun-ontziak eta tapak
Argiak eta osagarriak (piztarazgailuak, euskarriak, etab.)
Ateak eta osagarriak (sarrailak, eskulekuak, krisketak, giltzak, etab.)
Etengailuak
Entxufeak
Azulejoak

Taberna:
Udalarenak edo klubarenak diren aparatu guztiak
Ateak eta osagarriak (sarrailak, eskulekuak, krisketak, giltzak, etab.)
Argiak eta osagarriak (piztarazgailuak, euskarriak, etab.)
Entxufeak
Etengailuak
Eserlekuak
Aulkiak

Bulegoa:
Ateak eta osagarriak (sarrailak, eskulekuak, krisketak, giltzak, etab.)
Argiak eta osagarriak (piztarazgailuak, euskarriak, etab.)
Paretak, ateak eta ate-leihoan markoak margotu
Entxufeak
Etengailuak
Mahaiak
Aulkiak

Galdara-gela:
Garbitu
Atea eta osagarriak (sarrailak, eskulekuak, krisketak, giltzak, etab.)
Argiak eta osagarriak (piztarazgailuak, euskarriak, etab.)

Biltegiak:
Atea eta osagarriak (sarrailak, eskulekuak, krisketak, giltzak, etab.)
Argiak eta osagarriak (piztarazgailuak, euskarriak, etab.)
Dauden osagarri guztiak (apalak, esekitokiak, etab.)

Harmailak:
Barandak margotu eta konpondu.
Eserlekuak berritu, hautsita badaude. (ekintza bandalikoen ondorio ez bada)
Argiztapena (fokuen argiak, etab.)
Garbitu.

Zelaiak: Garbitu (zigarrokinak, pipak, etab.)
Hondarra eta kautxua kendu, behar denean.
Argian eta fokuen abiagailuak.
Baranda konpontzea
Barandako publizitatea konpondu.
Ihinztagailu-ahoak garbitu
Ateetako sareak.

Hernaniko Udala

Ateetako atzeko sareak eta errio ondoko sarea (ekintza bandalikoen ondorio ez bada).

Lorategiak: Garbitu
Belarra moztu
Arbolak kimatu

Sarrerako ateak: Margotu
Konpondu (ekintza bandalikoen edo lapurreten ondorio ez bada).

Publizitatea: Ateen atzeko eta zelaiko barandakoa publizitatea konpontzea eta, behar izanez gero, berria jartzea, klubaren konturakoa izango da.

Korridoreak: Zelaiak inguratzen dituzten korridoreak eta sarrerako atetik instalazioraino doazenak garbitzea.